ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2021eko apirilaren 23a, ostirala • 44 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2021eko otsailaren 23ko erabaki baten laburpena, zeinaren bidez deia egiten baita 2020/2021 ikasturte akademikoan musika ikasketak egiteko laguntzetarako

DDBN(Identif.): 556811

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/556811).

Xedea

Finantzatzen laguntzea Donemiliagako udalerrian erroldatutakoek udalak berak eta musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek 2020/2021 ikasturtean antolaturiko musika ikasketetan izena emateak eragindako gastuak, salbu eta udalak hitzartutako musika eskoletako izen emateen gastuak.

Onuradunak

Onuradun izango dira diruz lagunduko den jardueran izena emateko epea hasi aurretik gutxienez sei hilabetez segidan Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon diren pertsonak, 2020-2021 ikasturtean Donemiliagako Udalak edo musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek egindako musika jardueretara joaten badira, salbu eta zentro hitzartuek egiten dituztenetara.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran onetsiak.

Zenbatekoa

Onuradun bakoitzak gehienez ere dirulaguntza hau jaso ahalko du:

* 180,00 euro, baldin eta onuradunak izena eman badu Donemiliagako Udalak antolaturiko musika ikasketetan.

* 180,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketetako bi maila edo gehiago egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.

* 130,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketen arlo bat egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.

Oinarrietan jasoriko dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango musika ikasketen kostu osoaren ehuneko 50 baino gehiago, eta era berean, ezingo da gainditu udal aurrekontuaren gehienezko muga.

Onetsitako aurrekontuko aplikazioa nahikoa ez bada eskaera guztiei aurre egiteko, gehienezko dirulaguntza proportzioan murriztuko da.

Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honi aurre egiteko aurrekontu aplikazioaren zenbakia hauxe da: 326.482.001. Partida horren zuzkidura, gehienez, 3.000 euro izango da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak Donemiliagako udaletxean aurkeztu behar dira, 2021eko irailaren 24ra arte.

Erdoña, 2021eko apirilaren 7a

Bigarren alkateordea
DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2021.04.23 05:42:03 Z